

## Orixeren *Euskaldunak* poemaren metrika-azterketa

ELIXABET URDANGARIN

### Sarrera

Nikolas Ormaetxea, "Orixe"ren *Euskaldunak* poema bertsoan egi-na dagoen kontaketa luzea da, Nafarroako Uitzu du kokaleku, eta baserri eta mendi giroan urtebeteko epean gertatzen diren festa eta lanaren inguruko berri ematen du; hari fin bat bailitzan, Mikel eta Garaziren arteko harremanak ematen die lotura poema osatzen duten hamabost kantu edo atalei, baina ez omen protagonista bikotea, herriaren beraren bizimodua baizik.

Orixek *Euskaldunak* 1934rako bukatua bazuen ere, ez zen 1950era arte argitara eman (Itxaropena, Zarautz). Harrez gero izan ditu argitalpen gehiago, eta horietan bat 1980an La Gran Enciclopedia Vascak emana, 1950eko lehen argitalpen haren faksimilea, poema sorreraz geroztik gertutik jarraitu zuen Justo Maria Mokoroak akatsak eskuz zuzenduz prestatua. Argitalpen gehiago ere badira, Auñamendik 1972an *Euskaldunak* eta Orixeren gainerako poemak bilduz egina, besteak beste. Guk 1980ko argitalpena hartu dugu oinarri, lehenengo haren leialena delakoan, zalantza kasuetan besteetara joz.

Ia 2.000 ahapaldi ditu *Euskaldunak* poemak, Orixek egindakoak eta kantutegi eta ahozko tradiziotik jasotakoak denak barne; horietatik 1.500 inguru berak eginak. Hainbeste ahapaldi, errima, ...artean, komeni da ordena piska bat jartzea; izan ere, poema luzea da, baina ez nolana egi-na, eta argi piska bat egite aldera, azala aztertuz hasiko gara, poemaren metrika gaitzat hartuz.

Horretarako, kantuz-kantu egindako azterketari ekin aurretik, *Euskaldunak* osatzen duten ahapaldi guztiak zenbatu ditugu (ahapaldia unitatetzat hartuz), bai kantu edo atal bakoitzeko argumentuaren haria daramaten bertsoak, Orixek eginak, eta baita Orixek kanpotik (kantutegi, tradizio,...) bere lanera ekarriak ere. Kantu bakoitzeko lehen ahapaldiak "1" zenbakia du, gero 2, 3,... hau da, zenbaketa kantu bakoitzean 1etik hasi dugu (bestela zifra handiegiak geneuzkake).

Ahapaldiak zenbatu ondoren neurrian eta doinuan erreparatu dugu: ahapaldiek duten neurriaren arabera, kantua osatzen duten ahapaldiak taldeka bildu ditugu, neurriaren eskema jarritz. Gero neurri bereko ahapaldi horien doinua zein den erantsi dugu. Orixek poema hau kantatzeko egin zuen; horren lekuko da poemak duen doinu/partitura gehigarria. Doinu hauek zenbaki erromatarrekin zenbatuta daude, eta poeman zehar ahapaldiei zein doinu dagokien zenbaki erromatar horien bidez adierazten du. Guk ere horrela izendatuko ditugu doinuak, beraz.

Honenbestez, hona hemen atalez-atal eginiko metrika-azterketa.

### Atalez-atal metrika-azterketa

*Euskaldunak*, 1980, La Gran Enciclopedia Vasca

#### 1. Pestaburu (188 ahapaldi)<sup>1</sup>

- 1-15: - DOINUA: 1goa.
- NEURRIA: 4 puntuko txikia (8ko txikia, iparraldeko erara lau lerrotan jarria; J.M.Lekuona '94).<sup>2</sup>
- 13A (7+6)
- 13A (7+6)
- 13A (7+6)
- 13A (7+6)

(1) Kantu edo atal bakoitzean zenbat "ahapaldi" dauden esatean "ahapaldi" hitzarekin bertsoak (zortzikoak, lauakoak, ...), koplak, zerrendak ("Lectio"ak), denak hartu ditugu kontuan.

(2) LEKUONA, Juan Mari (1.994), "Euskal estrofez", Euskaltzaindiaren XIII. biltzarra, Leioa, 1994-10-3tik 7ra, *Euskera*, 1.994, 3. Estrofen izenak Lekuonak artikulatu honetan emandakoak jarraituz jarri ditut.

- 16-17: "Jondoni Mikel...":  
 - DOINUA: II.a  
 - NEURRIA: 2 ahapaldi, 8-5 silaba bitarteko 8na lerrokoak.
- 18-32: - DOINUA: aipamen berezirik ez, 1goa dateke.<sup>3</sup>  
 - NEURRIA: 4 puntuko txikia, etenak ondo.  
 13A (7+6)  
 13A (7+6)  
 13A (7+6)  
 13A (7+6)
- 33-47: "Haltzak eztü bihotzik":  
 - DOINUA: III.a.  
 - NEURRIA: 15 kopla: 7/8A // 8A // 10 // 8A: Mokoroak oinoharrean dioenez Gavelek dakarrenez zuzendua.
- 48-59 (59.a erdia, sarrera bertsoa):<sup>4</sup>  
 - DOINUA: aipamenik ez; 1goa dateke.  
 - NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 60-61: "Oihan zugatzik ederrena da":  
 - DOINUA: IV.a.

(3) *Euskaldunak* poemako kantu edo atal bakoitzak, zein urte-garaitan kokatua dagoen, hari dagokion festa eta lanaren ingurukoak biltzen ditu kontatzen diren gertakizunetan; atal bakoitzeko hari nagusiak aipatutako gertakizun horien berri ematen du neurri eta doinu jakin batean, eta noizean behin, kantu batzuetan maizago, besteetan bakanago, kantutegietakoak tartekatzen dira, hauek ere beren neurri eta doinuarekin. Berriz ildo nagusiari heltzen dioten bertsoak hasten direnean, ordea, ez dago bertso horiei dagokien doinua zein den dioen daturik. Poemak dituen hamabost ataletan behin eta berriz gertatzen da hau. Ikusirik atal bakoitzean hari nagusia daramaten bertsoak neurri berekoak direla, aldioroko aipamenik ez dagoenean ere, guk atal bakoitzaren hasierako doinua egotzi diegu bertso horiei, eta "... .a dateke" jarri dugu.

(4) Pestaburu atalean ageri diren bertso erdiak, nik egindako zenbaketaren arabera, 59.a, 65.a, 90.a eta 174.a dira. Erdiak izan arren nik zenbatu egin ditut (bertso osoak zenbatu ditudan bezala); 1972ko edizioan ere zenbatu eginen dira lerrook.

- NEURRIA: 2 bertso 6ko handian: 10 (5+5)  
8A  
10 (5+5)  
8A  
10 (5+5)  
8A

- 62-65 (65.a erdia, sarrera bertsoa):  
- DOINUA: aipamenik ez; 1goa dateke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.

- 66-67: "Aitak eman daut dotea":  
- DOINUA: V.a  
- NEURRIA: 2 ahapaldi: 1goa: 8A      2.a: 8A  
6a      6a  
10B      9B  
11B      9B  
8B      8B

- 68-69: - DOINUA: aipamenik ez, 1goa dateke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.

- 70: "Peru tuntun, Mari tuntun":  
- DOINUA: aipamenik ez, eta beharko luke, neurria aldatu baita. Ahapaldian esaten da hau inguru-txo delatxo.  
- NEURRIA: 13 lerrokoa:  
8A//10A//8//10B//5b//7//6b//5b//6b/  
/5b//6b//7//9B

- 71: - DOINUA: aipamenik ez, 1goa dateke  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.

- 72: "Biotz baten ordean mila banituke":  
- DOINUA: VI.a.  
- NEURRIA: aurreko bertsoak egiten dio honi sarrera, eta hau zortziko txikia dela dio, baina idatzi 4 puntuko txikia bailitzan egiten du: 13A//13A//13A//13A.

- 73-74: - DOINUA: aipamenik ez; 1goa dateke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 75-79: "Aista txikurrun-txakun":  
- DOINUA: VII.a.  
- NEURRIA: orohar 7//6a//7//6a luketen 5 ahapaldi + leloa; baina 7/6ko hori asko aldatzen da, silaba balantza handia baita: 7koak izan ditzake 8 nahiz 6 silaba, eta 6koak 5. 4ko txikia izan liteke.
- 80: "Azpiroz'ko aldapatik":  
- DOINUA: VIII.a  
- NEURRIA: 8ko txikia: 7//6a//7//6a//7//6a//7//6a + leloa
- 81: "Arruitz-aldean izandu dela":  
- DOINUA: IX.a  
- NEURRIA: 10A//10A//10A//10A, ahapaldi bakarra + leloa.
- 82-84: - DOINUA: aipamenik ez, 1goa dateke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 85: "Alli'tik ekarri da Arruitza zakurra":  
- DOINUA: X.a  
- NEURRIA: 84. bertsoak hau zortzikoa dela dio, baina lau lerrotan idazten du: 13A//13A//13A//13A (7+6 banaketaz), 4 puntuko txikia, beraz.
- 86: - DOINUA: aipamenik ez, 1goa dateke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia .  
- Hurrengoa ("Nik aditzea dudanez") zortzikoa dela dio.
- 87: "Nik aditzea dudanez":  
- DOINUA: XI.a.  
- NEURRIA: ahapaldi bakarra: 8A//7a//8//5a//7a//7a//7(6)/5a, zortzikoa? (8 lerro dituelako).
- 88: - DOINUA: aipamenik ez, 1goa dateke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 89: "Xori banintz, bele banintz":  
- DOINUA: XII.a.

- NEURRIA: ahapaldi bat: 8//8A//6//5//8A//5//4//7a;
- 88.ean dio hau xirulak jotako "minttoa" dela.
- 90: bertso erdia, sarrera bertsoa:
  - DOINUA: aipamenik ez, 1goa beraz.
  - NEURRIA: 4 puntuko txiki erdi bat (13A//13A), ala 2 puntuko txikia?
- 91-93: "Atea dizut kirrinkari"
  - DOINUA: XIII.a.
  - NEURRIA: 3 kopla: 8A//10//8A//8A (lehen koplan lehen lerroan 9 silaba);
- 94-146:
  - DOINUA: aipamenik ez, 1goa dateke.
  - NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 147-150: Salditxe'ko Beltzak Antxo Labain'goari (balankariari) botatako bertsoak dira;
  - DOINUA: aipamenik ez, 1goa dateke.
  - NEURRIA: 8ko txikian; izatez aurreko bertsoen neurri bera du, baina ezbedin idatzia.
- 151-158:
  - DOINUA: doinu aipamenik ez, 1goa dateke.
  - NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 159-161:
  - NEURRIA: afaritan Mikelek Garaziri botatako bertsoak, 3 bertso 8ko handian.
  - DOINUA: Ez du doinu aldaketarik zehazten baina beharko luke: 1go doinua 4 puntuko txikiarena da, eta doinu berezietan azkena erabilitakoa (XIII.a) kopla. Beraz, neurri aldaketa bai, baina doinua zehazteke.
- 162-167:
  - DOINUA: aipamenik ez, 1goa dateke.
  - NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 168-173: "Kantari nago, baiño":
  - DOINUA: ez du zehazten zein doinu behar duen, eta 1go doinuak ez du balio.
  - NEURRIA: 6 bertso: 7//6a//7//6a: 4ko txikia.
- 174: 13A//13A: bertso erdia da, baina ez dio ezeri sarrerarik egiten

- 175-188: - DOINUA: aipamenik ez, 1goa dateke.
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.

## 2. Artazuriketa (159 ahapaldi)

- 1-32: - DOINUA: XIV.a.
- NEURRIA: 14A (8+6)  
14A (8+6)  
14A (8+6)  
13/14 (7/8+6), azkenekoa 8+6 dutenak gutxi (1,7,10,12). 4 puntuko txikia da hau (8ko txikia, iparraldeko erara idatzia). 7/6kotik hurbil dago, eta 1.950.eko edizioan agertu ez ziren ohar haietako batean Orixek espreski "Artazuriketa" kantuari zegokiola esan zuen beltz baten tokian bi kortxea berdin jar daitezkeenez, era berean silaba baten tokian bi. Ondorioz 7koak 8 izan ditzake, eta 6koak 7. Beraz neurri hau 4 puntuko txikia da. ik. ORMAETXEA, Nikolas, (1.951), "Versos a la antigua" *Gernika* 16; Orixeren Idaztan Guztiak (OIG)-III, (431-432).
- 33-70: Atxomotxak kontatutako ipuina; hasiera eta bukaera \* \* \* honela markatuta, eta bertsoak komatxo artean.
- DOINUA: ez du doinurik zehazten, baina aurrekoen neurri berekoak direnez, XIV.ak balio du.
- NEURRIA: 14A (8+6)  
14A (8+6)  
14A (8+6)  
13/14A (7/8+6): azkenekoa 8+6: 35,37,44. bertsoetan; 8+6 nahiz 7+6 izan litezke, nola kontatzen diren: 51, 52, 55, 57, 58; besteak 7+6 dira. 4 puntuko txikia.
- 71-72: - DOINUA: 1-32 tartekoa (XIV.a)
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- jarraian zenbait kantu datozela esaten du.

- 73-83: "Ikusi nuanean":  
 - DOINUA: ez du zehazten, baina orain artekoak ez du balio.  
 - NEURRIA: 7//6a//7//6a ;11 bertso 4ko txikian.
- 84: - DOINUA: aipamenik ez, XIV.a dateke  
 - NEURRIA: 14A//14A//14A//14/13A (8+6 na, azkenekoan 8/7+6).4 puntuko txikia (silaba balantza handia).
- 85-88: "Ama ezkondu! ama, ezkondu"  
 - DOINUA: XV.a  
 - NEURRIA: 4 bertso, 8ko handian (10//8A//10//8A//10//8A//10//8A)
- 89-94: - DOINUA: aipamen berezirik ez, XIV.a dateke, kantu honen hasieratikoa.  
 - NEURRIA: 14A//14A//14A//13A (8+6; azken lerroa 7+6), 4 puntuko txikia (silaba balantza gertatzen da).
- 95: - DOINUA: XVI.a  
 - NEURRIA: 18A (10(5+5) +8)  
 18A (10(5+5) +8)  
 18A (10(5+5) +8)  
 18A (10(5+5) +8) 4 puntuko handia. Bertso honen bitartez biko aukeraketan Garazi Mikeli eman diote; ondorengo bertsoetan Gorriren tristura; komatxo artean dago, baina ezin jakin nork kantatu duen, gehiago dirudi narratzaile orokorrak botea.
- 96-116: - DOINUA: ez du bereziki aipatzen, baina hasierako neurria denez XIV.a dateke.  
 - NEURRIA: 14A (8+6)  
 14A (8+6)  
 14A (8+6)  
 13/14A (7/8+6): 101 eta 116. bertsoak bitara neur litezke. 4 puntuko txikia (silaba balantza).



- 117:<sup>5</sup> "Lectio Epistolae Larraun'go":  
 - *Larraun*: Aldatz, Etxarri, Lekunberri, Uhitzi, Gorriti, Azpirotz, Lezeta, Albisu, Errazkin, Baraibar, Iribes, Alli, Mugiro, Arruitz, Astitz, Odoritz (Oderitz), Madotz. (17 herri dira Larraunen).  
 - Larraungo herri bakoitzeko esaldi bat, erri-matuz. Neurri librean, doinurik aipatu gabe.
- 118: "Lectio Epistolae Uitz'i'ko":  
 - Uhitziko baserri-izenak eta haien gaitzizenak, errima bukaera guztietan (nongo, -ko, -eneko), neurri librean; doinu aipamenik ez.
- 119-121: - DOINUA: doinu aipamenik ez, hasieratikoa, XIV.a.  
 - NEURRIA: 14A (8+6)  
 14A (8+6)  
 15/14A (8+7/6) (119 eta 120.ean 8+7)  
 13A (7+6) 4 puntuko txikia (silaba balantza)
- 122: Artazuriketari asmatutako nesken gaitzizenak, "Lectio Epistolae" modura.  
 - DOINUA: XVII.a  
 - NEURRIA: 10/12 silabatako 18 lerro, 12 silabakoak nagusi.
- 123-124: - DOINUA: aipamenik ez, XIV.a.  
 - NEURRIA: 14A (8+6(7+6 124.ean))  
 14A (8+6)  
 14A (8+6)  
 13A (7+6) 4 puntuko txikia (silaba balantza)  
 - segidan ama-alaben arteko berriketa datorrela esaten da.

(5) "Lectio" edo zerrendatze hauek, lerro kopuru ezberdinekoak izan arren, ahapaldi bakartzat hartu ditugu eta hala zenbatu. *Euskaldunak* oso poema luzea denez, aipuak egiteko garaian lana errazteko zenbatu ditugu ahapaldiak; beraz, "Lectio"ak zenbatzeak ez du esan nahi neurritz beste gainerako ahapaldien parekotzat jo ditugunik.

- 125-149: "Aurten ba diñagu arto":  
 - DOINUA: aipamenik ez, baina beharko luke, neurria aldatu egin baita.  
 - NEURRIA: 25 bertso lauко ertainean: 8//7a//8//7a , aldaketa txiki batzuekin, batzuetan azken lerroa 8A da.
- 150-152: - DOINUA: aipamenik ez, XIV.a dateke.  
 - NEURRIA: 123-124ko neurria baina nahasi samarra, 4 puntuko txikia (silaba balantza):  
 150: (8+7)A 151: (8+7)A 152: (8+6)A  
           (8+7)A           (7+6)A           (8+6)A  
           (8+6)A           (8+6)A           (8+6)A  
           (7+6)A           (7+6)A           (7+6)A  
 Kantu honen hasieran beltz eta kortxeei buruz esana gogora, silaba kopuruarena azaltzeko.
- 153-158: "Neure senar tontozko":  
 - DOINUA: XVIII.a  
 - NEURRIA: 6 kopia ertain, 7a//7a//8//7a, senar-emazteek elkarri egotziak azalduz.
- 159: - DOINUA: aipamenik ez, XIV.a dateke  
 - NEURRIA: 14A//14A//14A//14A (8+6 beti); 4 puntuko txikia (silaba balantza).

### 3. Gaztaiñaro (101 ahapaldi)

- 1-82: - DOINUA: XIX.a  
 - NEURRIA: 8ko handia, 10//8A//10//8A//10//8A//10//8A (10=5+5, etena beti)
- 83: "Ba nabilazu karrketan":  
 - DOINUA: XX.a.  
 - NEURRIA: bertso bakarra 6ko nagusian: 9//8A//10//8A//10//8A
- 84-94: - DOINUA: aipamenik ez, baina XIX.a dateke  
 - NEURRIA: 8ko handia, etenak beti errespetatzen ditu.

- 95: "Nik zartaria ":  
 - DOINUA: XXI.a.  
 - NEURRIA: bertso bat, 8 lerrokoa: 5a//6a//6b//6b//7b//7/  
 /5b.
- 96: -DOINUA: aipamenik ez; XIX.a dateke.  
 - NEURRIA: 8ko handia.
- 97: "Arrosa eder baratzean"  
 - DOINUA: aipamenik ez, baina neurria aldatu denez ko-  
 pla hauek beste doinu bat behar dute.  
 - NEURRIA: estrofa bakarra (lauko berdina zortzi sila-  
 bez?): 8A//8A//8-//8A: 3.lerroan 9 silaba ere  
 konta daitezke: a/mo/dio/rik eginez gero 8  
 ditu, a/mo/di/o/rik hartuz gero 9.
- 98-101: - DOINUA: aipamenik ez, baina XIX.a dateke  
 - NEURRIA: 8ko handia. 98.ean 1go lerroan etenik ez.

#### 4. Iruleak (140 ahapaldi)

- 1-5: - DOINUA: XXII.a  
 - NEURRIA: 13A (7+6)  
 13A (7+6)  
 13A (7+6)  
 13A (7+6) 4 puntuko txikia
- 6-7: "Lo nago ta logure, argi-oillarrak jo dute":  
 - DOINUA: XXIII.a  
 - NEURRIA: 2 ahapaldi, 1goa:  
 15A (7a/8A) 2.a: 15A (7a/8A)  
 18A (10/8A) 18A (10/8A)  
 15B (7b/8B) 16B (8B/8B)  
 18B (10/8B) 17B (9/8B)  
 silaba kopuruan balantza piska bat, baina  
 doinu berarekin kantatzen dira biak.
- 8-46: - DOINUA: aipamenik ez, XXII.a dateke.  
 - NEURRIA: 4 puntuko txikia

- 47-57: “Oi bart”:  
- DOINUA: XXIV.a  
- NEURRIA: zerrendaketa da, izenak erantsiz osatua, beraz gero eta silaba gehiago.
- 58-61: “Emezortzi serore”:  
- DOINUA: XXV.a  
- NEURRIA: 3 ahapaldi:  
13A (7+6) + leloa: (9+6)A  
13A (7+6) (8+8)A  
13A (7+6) (8+6/7+6/7+7) A  
13A (7+6) (7+6)A  
4 puntuko txikia.
- 62-66: “Ardo gorri naparra”:  
- DOINUA: XXVI.a  
- NEURRIA: a,e,i,o,u bokal bakoitzeko 10A//7a//7a//10A, lehenengo 10A delarik errepikatua 4. lerroko 10A hori .
- 67-69: “Ni iltzen naizen egunean”  
- DOINUA: XXVII.a  
- NEURRIA: 3 ahapaldi, silaba kopurua 7-11 bitartekoa, aldakor samarra, baina doinuak berdintzen ditu; errimak hiru ezberdin: \_\_\_\_\_a  
\_\_\_\_\_a  
\_\_\_\_\_b  
\_\_\_\_\_b  
\_\_\_\_\_c  
\_\_\_\_\_c
- 70-76: “Txanton Piperri”:  
- DOINUA: XXVIII.a  
- NEURRIA: 7 ahapaldi: 8A//8A//10(5+5)//8B//8B : 73, 75 eta 76.ahapaldietan errima guztiak A.
- 77-89: “Besta biharamuna”:  
- DOINUA: XXIX.a.

- NEURRIA: 13 ahapaldi: 11A//10A//13//7a//11A//11A: badaude silaba kopuruan balantza txiki batzuk, baina doinuak berdintzen ditu.
- 90-106: - DOINUA: aipamenik ez, XXII.a dateke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 107:<sup>6</sup> "Alos torrea":  
- DOINUA: XXX.a  
- NEURRIA: 5 lerrotako leloa, eta segidan 76 lerro elkarren segidan, 5-14 silaba bitarteko luzera dutenak.
- 108: - DOINUA: aipamenik ez, XXII.a  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 109-112: "Goizean goizik jeiki ninduzun":  
- DOINUA: XXXI.a  
- NEURRIA: 4 bertso, 8ko handian, baina aldaketa, silaba balantza batzuekin.
- 113: - DOINUA: aipamenik ez, XXII.a  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia
- 114-123: "Atharratze-jauregian bi zitroin doratü":  
- DOINUA: XXXII.a  
- NEURRIA: 10 bertso, orohar 4 puntuko txikia baina silaba kopuruan balantza handiak.
- 124-125 : - DOINUA: aipamenik ez, XXII.a izan daiteke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 126-138: "Imoz'ko apezgaia":  
- DOINUA: XXXIII.a  
- NEURRIA: 13 bertso, 8ko handian: 10//8A/10//8A//10//8A//10//8A (10=5+5)
- 139-140: - DOINUA: aipamenik ez, beraz, XXII.a  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.

---

(6) "Alos torrea" osorik hartu dugu zenbaketa honetan, zenbaki bakarra jarritz, 1.980ko argitalpenean ahapaldi banaketa garbirik ez daukalako, eta zenbaki hori nahikoa dugulako aipuak egiteko.

## 5. Olentzaro (169 ahapaldi)

- 1-81:       - DOINUA: XXXIV.a  
              - NEURRIA: 13A (7+6)  
                          13A (7+6)  
                          13A (7+6)  
                          13A (7+6) , 4 puntuko txikia.
- 82-85:     "Olentzaro begi-gorri":  
              - DOINUA: aipamenik ez, baina neurri aldaketak beharko  
                          luke doinu aldaketa.  
              - NEURRIA: 4 kopla, 8A//8//8A//8A (silaba kopuruan ba-  
                          lantza, 8tik 9ra).
- 86-91:     - DOINUA: aipamenik ez, XXXIV.a dateke  
              - NEURRIA: 4 puntuko txikia
- 92-106:    "Oles! Ta(i) Oles! Etxekoak!":  
              - NEURRIA: 15 kopla: - 8A//8A//10//8A: (92, 93, 94, 97, 99,  
  100, 101, 103, 104,  
  eta 106. ahapaldietan)  
  - 10//8A//10/8A: (95, 96, 98, 102,  
  eta 105.ahapaldietan)  
              - DOINUA: baina doinu berarekin kantatzeko dira,  
                          XXXV.arekin.
- 107:       - DOINUA: aipamenik ez, XXXIV.a dateke.  
              - NEURRIA: 4 puntuko txikia.
- 108-110:   "Atea jotzen ez dugu lanik":  
              - DOINUA: aipamenik ez baina aurreko koplana, XXXV.a  
                          dateke.  
              - NEURRIA: 3 kopla (Garaziri): 108.a: 10//8A//10//8A  
  109 eta 110.a: 8A//8A//10//8A
- 111:       - DOINUA: XXXIV.a  
              - NEURRIA: 4 puntuko txikia
- 112-113:   "Etxeko-alaba andretakoa":  
              - DOINUA: aipamenik ez, beraz duen neurriagatik  
                          XXXV.a

- NEURRIA: 2 koplak, 10//8A10//8A

- 114-169: - DOINUA: aipamenik ez, baina XXXIV.a  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia.

## 6. Iñauteri (157 ahapaldi)

- 1-23: - DOINUA: XXXVI.a  
- NEURRIA: 8A//8A//10//8A//10//8A orohar, baina silaba balantza handi samarra: lehenengo lerroan, bigarrenean eta seigarrenean 8 silaba beharreen 7; 3 eta 5. lerroetan 10 silaba beharreen 9, 4+5 banaketa delarik maizenik gertatzen dena.
- 24-26: "Bein batean tabernan":  
- DOINUA: XXXVII.a  
- NEURRIA: 3 ahapaldi neurri aldakor samarreen, 7 eta 11 silaba bitarteko 6na lerrotakoak, baina doinuak berdindutzeak.
- 27-28: "Kartak iru, kartak lau":  
- DOINUA: XXXVIII.a  
- NEURRIA: 2 ahapaldi, neurri aldakorra, baina doinu berekin kantatzeko.
- 29-30: "Gure etxean lau ardi":  
- DOINUA: XXXIX.a.  
- NEURRIA: 2 ahapaldi, 8A//8A//10//8A//10//8A neurria dutenak, silaba kopuruan aldaketa dexenterekin.
- 31: - DOINUA: aipamenik ez baina hasieratikoa dateke, XXXVI.a  
- NEURRIA: 8A//8A//10//8A//10//8A
- 32-33: "Binbili-bonbolo, jan ta lo":  
- DOINUA: XL.a  
- NEURRIA: 2 ahapaldi, 1goa: 9A//9A//5b//5b//8A  
2.a: 8A//8A//10//8A  
ez dira lerro kopuru bereko estrofak, baina doinu berekin kantatzeko dira, nola?

- 34: - DOINUA: aipamenik ez, XXXVI.a dateke.  
- NEURRIA: 8A//8A//10//8A//10//8A
- 35-36: "Zikiro beltza ona da, baina":  
- DOINUA: XLI.a  
- NEURRIA: 2 bertso 4ko handian, 10//8A//10//8A  
(10=5+5)
- 37-59: - DOINUA: aipamenik ez, beraz XXXVI.a dateke  
- NEURRIA: orohar 8A//8A//10//8A//10//8A, baina silaba kopuruan balantza, 8koetan 7, eta 10ekoetan 9 eginez. Hala ere doinuak berdintzen du hori.
- 60: "Sagarraren adarraren":  
- DOINUA: XLII.a  
- NEURRIA: ahapaldi bat: 8//9//11A//12A//10A (ez dakit errimak zuzen dauden).
- 61: - DOINUA: aipamenik ez, beraz XXXVI.a dateke  
- NEURRIA: 8A//8A//10//8A//10//8A
- 62-63: "Iru txito izan, eta ama, lau":  
-DOINUA: XLIII.a  
- NEURRIA: 2 ahapaldi, 11A//11A//11B//10B / 11B  
1goan/2.ean
- 64-98: - DOINUA: aipamenik ez, beraz XXXVI.a  
- NEURRIA: 8A//8A//10//8A//10//8A: silaba kopuruan balantza, 10 beharrean 9, 8 beharrean 7; 10 beharrean 9 direnetan etena gehienetan 4+5 da, behin edo beste 5+4.
- 99-107: "Azariak sei axuri":  
-DOINUA: aipamenik ez, baina neurri aldaketa gertatuenez, doinu aldaketa behar genuke.  
- NEURRIA: 9 ahapaldi eta 3 neurri:  
1goa: 8//8A//10//8A: 99, 100, 105 eta 107. ahapaldientzat.  
2.a: 8//8A//8//8A: 101, 102, 103 eta 104. ahapaldientzat.  
3.a: 10//8A//10//8A: 106. ahapaldiarentzat.



Silaba kopuruan balantza, 8koak 7ko eta 9ko bihurtzen dira. 105. estrofak lehen lerroan 9 silaba ditu, baina zer da 8+1, ala 10-1?

- 108-124: - DOINUA: aipamenik ez, beraz XXXVI.a dateke.
- NEURRIA: 8A//8A//10//8A//10//8A, orohar, baina silaba kopuruan balantza, 8koak 7ko, eta 10ekoak 9ko (4+5, gehienetan) bihurtuz.
  
- 125: "Antzar zango-gorri orri":
- DOINUA: XLIV.a
- NEURRIA: ahapaldi bat: 8A//6a//6a//8A//6a//6a//11 edo12//5a
  
- 126-131: - DOINUA: aipamenik ez, beraz XXXVI.a
- NEURRIA: 8A//8A//10//8A//10//8A, silaba kopuruan balantza: 8koetan 7, 10ekoetan 9 (4+5 norma-lean); 131.bertsoan azken bi lerroetan 10//8A beharrian, 8//7a.
  
- 132: "Astearte-iaute":
- DOINUA: XLV.a
- NEURRIA: ahapaldi bat: 8A//6a//10B//6c//6c//10 B edo 11B
  
- 133-157: - DOINUA: aipamenik ez, beraz XXXVI.a
- NEURRIA: 8A//8A//10//8A//10//8A ; silaba kopuruan balantza, 8koetan 7, 10ekoetan 9 (4+5).

## 7. Denok bat (123 ahapaldi)

- 1-21: - DOINUA: XLVI.a
- NEURRIA: 8ko handia, 10//8A//10//8A//10//8A//10//8A (10=5+5, etenak errespetatuz).
  
- 22-29: "Zazpi aizparen gai dan oiala":
- DOINUA: aipamen berezirik ez; aurreko bertsoen neurri bera denez aurreko ataleko XLVI.arekin kanta liteke.
- NEURRIA: 9 bertso, 8ko handian.
- Pello Maria Otañorenak dira bertso hauek.

- 30:           - DOINUA: aipamenik ez, beraz, XLVI.a dateke.  
                   - NEURRIA: 8ko handia; bertso honetan dio Beltxak lehen kantatuengatik txalo asko jaso duela; badirudi "Zazpi aizparen" bertso batzuk Beltxak kantatu dituela, erdiz aurrera, edo.
- 31-38:       "Arbola bat":  
                   - DOINUA: aipamenik ez, eta neurria ere lehengo bera denez erabil liteke XLVI.a.  
                   - NEURRIA: 8 bertso 8ko handian.  
                   - Bertsook Arrese Beitiarenak direla esaten da poeman, eta Mañarik kantatzen ditu atal honetako bertso ihardu-nean.
- 39:           - DOINUA: aipamenik ez, beraz XLVI.a.  
                   - NEURRIA: 8ko handia.
- 40-51:       "Agur Euskal-Erria'ri":  
                   - DOINUA: aipamenik ez, eta behar luke, neurria aldatu egin baita.  
                   - NEURRIA: sarrera ahapaldi bat : 7//6a//7//6a, eta 11 bertso 8ko txikian, 7//6a//7//6a//7//6a//7//6a  
                   - Bertsoen egilea Zalduby-Adema kalonjea, eta kantaria Irube.
- 52:           - DOINUA: aipamenik ez, XLVI.a dateke.  
                   - NEURRIA: 8ko handia.
- 53-75:       "Itsas-gizona":  
                   - DOINUA: aipamenik ez, XLVI.a dateke, hasierako neurri berean ari garelako.  
                   - NEURRIA: 23 bertso, 8ko handian; etenak errespetatuz (10=5+5).
- 76:           - DOINUA: aipamenik ez, XLVI.a dateke  
                   - NEURRIA: 8ko handia.
- 77-92:       "Iru bigaen zerga":  
                   - DOINUA: aipamenik ez, neurri berean ari garenez aurrekoak balio dezake, XLVI.ak.

- NEURRIA: 16 bertso 8ko handian.
- Mikel Eleder kantari.

- 93: - DOINUA: aipamenik ez, XLVI.a dateke
- NEURRIA: 8ko handian.

- 94-117: "Azkeneko ola-gizona":
- DOINUA: aipamenik ez, eta beharko luke, neurria aldatu da eta.
- NEURRIA: 24 ahapaldi, neurri aldakorrak.

94-95: 7//6a//7//6a//6a//6a

.....

96-107: 7//6a//7//6a

.....

108-114: 7//6a//7//6a

115: 7//6a//7//6a//6a//6a

.....

116: 7//6a//7//6a//6a//6a

117: 7//6a//7//6a

- Bertso hauen egilea Manuel Lekuona da eta kantuan ari dena Matxin Lekuona goierriarra (hau poemako pertsonaia da).

- 118-122: - DOINUA: aipamenik ez, beraz XLVI.a dateke.
- NEURRIA: 8ko handia.

## 8. Axurtaro (102 ahapaldi)

- 1-102: - DOINUA: XLVII.a
- NEURRIA: kantu edo sail osoa 8ko handian egina dago, bestelakorik tartekatzeke: 10//8A//10//8A//10//8A//10//8

## 9. Letari (117 ahapaldi)

117ak guztiak Orixerenak dira

- 1-41: - DOINUA: XLVIII.a

- NEURRIA: 13A (7+6)  
13A (7+6)  
13A (7+6)  
13A (7+6)  
13A (7+6) 5 puntuko txikia.
- 42-105: - DOINUA: XLIX.a  
- NEURRIA: 8ko handia: 10//8A//10//8A//10//8A//10//8A  
- Joxe Azurmendik aipatzen duen "kronistarena" atal honetan dago 42-67 bertsoetan.<sup>7</sup>
- 106-109: - DOINUA: aipamenik ez poeman bertan, baina liburuak bukaeran dakartzan partituretan "L", 50.a lau bertso hauei dagokie, 106.bertsoaren etra dakar partiturak.  
- NEURRIA: 4 ahapaldi: 8A//8A//10//8A//10//8A.  
- euri eskean otoitzean ibili ondoren, hasi du euria, eta eskerronez Mikel Elederrek Aralarko Mikeli lau bertso hauek.
- 110-117: - DOINUA: aipamenik ez, beraz XLIX.a dateke.  
NEURRIA: 8ko handia: 10//8A//10//8A//10//8A//10//8A

## 10. Artajorra (111 ahapaldi)

- 1-23: - DOINUA: LI  
- NEURRIA: 13A (7+6)  
13A (7+6)  
13A (7+6)  
13A (7+6) 4 puntuko txikia
- 24-25: "San Joan! San Joan!":  
- DOINUA: aipamenik ez, eta behar luke, neurria aldatu delako.  
- NEURRIA: 2 ahapaldi bertso-lerroz eta neurritz ezberdinak:  
1goa: 6a//8A//7a//6a//10B//8B  
2.a: 9A//9A//8B//10B

(7) AZURMENDI, Joxe (1.977) *Zer dugu Orixeren alde?*, Arantzazu-Oñate, Jakin liburu sorta 25.a, 53-67

- 26: - DOINUA: aipamenik ez, beraz LI.a dateke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia: 13A//13A//13A//13A  
(13=7+6)
- 27-45: "Artoaren nekea":  
- DOINUA: LII.a  
- NEURRIA: 19 ahapaldi, 8A//8A//10//8A//10//8A.
- 46: - DOINUA: aipamenik ez, LI.a dateke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia: 13A//13A//13A//13A  
(13=7+6)
- 47-63: "Laborari gaixua":  
- DOINUA: aipamenik ez, eta neurria aldatu denez gero behar luke.  
- NEURRIA: 17 ahapaldi, neurria orohar,  
8A  
8A  
17 (9+8)A  
17 (9+8)/16 (8+8)A  
- Kanta/poema hau Etxahunena da.
- 64-111: - DOINUA: aipamenik ez, LI.a dateke.  
- NEURRIA: 4 puntuko txikia: 13A//13A//13A//13A  
(13=7+6)

### 11. Belarrekoan (125 ahapaldi)

- 1-125: - DOINUA: LIII.a  
- NEURRIA: 8ko handia, 10//8A//10//8A//10//8A//10//8A  
10 silabakoren bat bada etena 5+5 egiten ez duena (adibidez: 62. ahapaldian 7. lerroa 4+6 da), baina orohar errespetatzen da.

### 12. Eultzia (125 ahapaldi)

- 1-117: - DOINUA: LIV.a  
- NEURRIA: 8ko handia: 10//8A//10//8A//10//8A//10//8A

- 118-124: "Larraiñ-dantza":
  - DOINUA: aipamenik ez, eta beharko luke, neurri aldaketa gertatu da eta.
  - NEURRIA: 7 bertso 4ko txikian: 7//6a//7//6a + 7 silabako lerro bat errepika gisa. Lehenengo bertsoan errepika koplaren bukaeran bi aldiz, eta ondoren 2.puntua<sup>8</sup> berriz, guztira 8 lerro osatuz.
- 125:
  - DOINUA: aipamenik ez, baina LIV.a dateke.
  - NEURRIA: 8ko handia: 10//8A//10//8A//10//8A//10//8A

### 13. Eztaietan (144 ahapaldi)

- 1-16:
  - DOINUA: LV.a
  - NEURRIA: 13A (7+6)  
13A (7+6)  
13A (7+6)  
13A (7+6) 4 puntuko txikia.
- 17-25:
  - DOINUA: aipamenik ez, baina beharko luke.
  - NEURRIA: koplak dira, 8A//8A//10//8A.
- 26-40:
  - DOINUA: aipamenik ez, baina LV.a dateke.
  - NEURRIA: 4 puntuko txikia: 13A//13A//13A//13A  
(13=7+6)
- 41-50: "Andre nobia, ille-oria":
  - DOINUA: LVI.a
  - NEURRIA: 10 bertso 4ko handian: 10//8A//10//8A
- 51-76:
  - DOINUA: aipamenik ez, baina LV.a dateke
  - NEURRIA: 4 puntuko txikia: 13A//13A//13A//13A  
(13 = 7+6)
- 77-90: "Toberak":
  - DOINUA: LVII.a
  - NEURRIA: 13 bertso 8ko txikian: 7//6a//7//6a//7//6a//7//6a

(8) "puntua" zer den, definizio ezberdinak eman dira; hemen "puntua" rekin errimatik errimara doan tartea esan nahi dugu.

- 91-110: - DOINUA: aipamenik ez, LV.a dateke
- NEURRIA: 4 puntuko txikia: 13A//13A//13A//13A  
(13=7+6)
- 111-121: "Ni naiz Petiri Danbolin":
- DOINUA: LVIII.a
- NEURRIA: 12 kopla: 8A//8A//10//8A.
- 122-144: DOINUA: aipamenik ez, beraz LV.a dateke.
- NEURRIA: 4 puntuko txikia: 13A//13A//13A//13A  
(13= 7+6)

#### 14. Eztaiondo (100 ahapaldi)

- 1-100: - DOINUA: LIX.a
- NEURRIA: 8ko handia: 10//8A//10//8A//10//8A//10//8A

#### 15. Amonaren illeta (85 ahapaldi)

- 1-85: - DOINUA: LX.a
- NEURRIA: 8ko handia: 10//8A//10//8A//10//8A//10//8A

#### Azkena

- DOINUA: aipamen zehatzik ez; LX.a izan daiteke.
- NEURRIA: 8ko handia.

#### Ondorioak

Ezaguna da Orixek ez zuela bertsoarik onartzen irakurtzeko baldin bazen, kantatzeko ordea, bai, eta onartu ez ezik baita egin ere; *Euskaldunak* da lekuko.<sup>9</sup> Baina kantatzeko egindako bertsoak direnez, ez dute beti-beti bertso neurri jakin bakoitzaren lerroko silaba kopurua erabat errespetatzen, eta silaba balantza gertatzen da. Hori, ordea, doinuak berdintzen du, musikan beltz baten lekuan bi kortxea jar bailitezke, eta ondorioz baita silaba baten tokian bi ere.

(9) Gai honen inguruan Orixek zuen jarreraren berri ematen du Orixeren beraren "Oraindañoko euskal-neurtitzak-(1)" lanak, *Itzaldia*k, VI, 1930; OIG-III 327-346.

Balantzak balantza, hamabost atal hauetan hari nagusiari eusteko Orixek zein neurri aukeratu zuen ikusten hasita, nabarmena da 8ko handiaren (10//8A//10//8A//10//8A//10//8A) eta 4 puntuko txikiaren (13A//13A//13A//13A, hau da hegoaldeko 8ko txikia, lau lerrotan idatzia, 7//6a = 13A eginez) nagusitasuna. 4 puntuko txikian eginak daude "Pestaburu", "Artazuriketa", "Iruleak", "Olentzaro", "Artajorra" eta "Eztaietan"; 8ko handian, aldiz, "Gaztaiñaro", "Denok-bat", "Axurtaro", "Letari", "Belarrekoan", "Eultzia", "Eztaiondo" eta "Amo-naren illeta"; hamabost ataletatik zortzi, beraz, 8ko handian, irakurtzeko egokia ez deritzon arren kantatzeko balio baitu, "Batez ere zortziko aundi ori, lo-argari ori, sartu zaigu ezurretaraño, kantan euskaldunena baldin ba da ere".<sup>10</sup> Bi neurri ezagun horietatik kanpo geratzen da "Iñauteri", 8A//8A//10//8A//1//8A neurria duena.

Honek ez du esan nahi, inondik ere, Orixek *Euskaldunak* poema hiru neurri bakarrik erabiliz egin zuenik. Aitzitik, ez da ahaztu behar istorioaren hari nagusiari ipuin, kanta eta abarrak txertatzen zaizkion bezala, ildo nagusia daramaten neurri horiekin batera beste asko ere ageri direla, izan ere ahozko tradiziotik hartutako kanta asko bildu ditu egileak poemara, eta horiek berea duten doinua eta neurria ekarri dituzte *Euskaldunakera*. Atalez-atal eginiko azterketan ikus liteke neurri aberastasun hori zertan den.

(10) aipamen bera, 328.or.